



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Galdakaoko Udala

Galdakaoko Udaleko Udaltzaingoaren plantillan hutsik dauden hiru plazak barne-promozioaren txandaren bidez estaltzeko hautatze- eta hornitze-deialdia arautzen duten oinarriak. (Oker zuzenketa).

Oker bat sumatu ondoren Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 2018ko ekainaren 22ko, 122 zenbakian, Bizkaiko Aldizkari Ofiziala arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 97/2009 Foru Dekretuko 17. artikuluan esaten duenez, jarraian berriz iragarki osoa argitaratzen da.

Galdakaoko udaleko udaltzaingoaren plantillan hutsik dauden hiru plazak barne-promozioaren txandaren bidez estaltzeko hautatze- eta hornitze-deialdia arautzen duten oinarriak.

2018ko maiatzaren 16ko 516/18 Alkate-dekretuz, 2017ko uztailaren 24ko 141. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako 2017ko Enplegu Eskaintza Publikoan jasotako Galdakaoko Udaltzaingoaren Plantillako plaza hutsetarako, barne promozioz, karrerako funtzionarioak hautatzeko eta, ondoren, hornitzeko deialdia arautuko duten Oinarriak onetsi dira.

Galdakaon, 2018ko maiatzaren 26an.—Alkatea



**GALDAKAOKO UDALAREN PLANTILLAKO KARRERAKO FUNTZIONARIO BATEZ,
UDALTZAINGOAREN OFIZIALORDE PLAZA BAT, BARNE PROMOZIOZ
ETA OPOSIZIO-LEHIAKETA SISTEMAZ,
HORNITZEKO DEIALDIA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK**

Lehenengoa.— Deialdiaren helburua

Deialdi honen helburua da Galdakaoko Udalaren Plantillako Ofizialordearen lanpostu hutsa jabetzaz hautatzea: Administrazio Bereziko Eskalakoa, Zerbitzu Berezien Azpieskalakoa, Udaltzaingoaren taldekoa, A2/C1 ordainsari taldeari dagokion soldatarekin, destino-osagarria 21a eta 3. hizkuntza-eskakizun ez derrigorrezkoa, 2017ko uztailaren 11ko 1080/17 Alkate-dekretuz onetsitako eta 2017ko uztailaren 24ko 141. zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako 2017ko Enplegu Publikoaren Eskaintzan dagoena.

Hornitzeko eskakizun jakin bat duten lanpostuak inoiz ere ezin izango dituzte hornitu, eskakizun hori Oinarrietan aurreikusitako eran betetzen dutela egiaztatu ez duten izangaiek.

Epaimahaiak ezin izango du hautatu deitutako plaza kopurua baino izangai gehiago. Muga hori urratzen duten proposamenak erabat baliogabeak izango dira.

Hautaketa-prozesuko proba guztiak edo baten bat gainditu duten eta plazarik lortu ez duten izangaien zerrendarekin lan-poltsa bat sortuko da, Alkate-dekretuz onartutako Galdakaoko Udalaren lan-poltsak kudeatzeko irizpideen arabera.

Izangaien hautaketa barne-promozioko txandaz oposizio-lehiaketa sistemaz burutu da eta hautaketa-prozesuko fase bat gehiago gisa osatuko da, prestakuntza-ikastaroa eta praktiketako epea eginez.

Deialdi honetan eta bere oinarrietan aurreikusita ez dagoen guztian, EAEko Poliziaren Hautaketa eta Prestakuntza-araudia onesten duen uztailaren 19ko 315/1994 Dekretua aplikatuko da, eta berorren aldaketak onesten dituzten maiatzaren 21eko 111/2002 Dekretua eta otsailaren 17ko 36/2004 Dekretua.

Bigarrena.— Izangaiek bete beharreko eskakizunak

Hautaketa-prozesu honetan parte hartzeko, eta dagokion kategorian sartzeko gainerako eskakizun orokorrak bete beharko badira ere, karrerako funtzionarioek ondoko baldintzak bete beharko dituzte.

- Galdakaoko Udalaren karrerako funtzionario izaera izatea. Galdakaoko Udalaren Udaltzaingoaren Agente Lehenaren kategorian jarduneko zerbitzuan egotea. Era berean, EAEko Poliziaren Seigarren Xedapen Iragankorraren arabera, Galdakaoko Udalaren Udaltzaingoaren Agente kategorian jarduneko zerbitzuan dauden karrerako funtzionarioek ere parte har dezakete.
- Agente Lehenaren kategorian karrerako funtzionario gisa benetako lau urteko zerbitzuak beteta izatea edo Galdakaoko Udaltzaingoaren Agente kategoriako karrerako funtzionarioen kasuan, benetako zerbitzuan sei urte beteta izatea.
- Arau-hauste larria edo oso larria egin izanagatik zehatuta ez egotea, edo ezarritako zehapena ezeztatuta izatea.
- Batxilerreko, Lanbide Heziketako 2. gradua edo baliokidearen titulazio akademiko ofiziala izatea edo eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen lortzeko moduan izatea, edo EAEko Poliziaren 4/1992 Legearen 59.2 artikulua aipatzen dituen trebakuntza ikastaroak gaindituta izatea, azpitik hurren dagoen taldearen titulazio ofiziala izanik.
- Hornitu beharreko lanpostuaren eginkizunak betetzea galarazten dion gaixotasunik edo akats fisikorik ez izatea, aurretiaz osasun-azterketak egin ondoren.
- Ezintasun edo bateraezintasuneko lege-auzitan sartuta ez egotea.

Izangaiek aipatutako eskakizun guztiak bete beharko dituzte eskabide-orriak aurkezteko epea amaitzen den egunean, eta mantendu egin beharko dituzte Udal honetako karrerako funtzionario gisa lanpostua jabetzaz hartzeko momentura arte.

**Hirugarrena. — Eskabideak**

Hautaketa-prozesu honetan parte hartzeko eskabideetan, Deialdiaren Oinarrietan ezarritako eskakizun guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute izangaiek. Eskabide horiek Esan Bulegoan eskura egongo den eredu ofizial normalizatuan aurkeztuko dira, Alkate-Udalburuari zuzenduta, Deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuta agertzen den biharamunean zenbatzen hasita 20 egun naturaleko epean.

Era berean, eskabide-orriak urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten duen eran ere aurkez daitezke.

Eskatzaileek adierazpen bat erantsi beharko dute eskabide-orrian, alegatu diren merituen zerrenda lehiaketa-fasean balora dadin. Eskakizunak eta alegatutako meritua betetzeari buruzko adierazpena, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabide-orrian zerrendan jarriz eta argi identifikatuz egin beharko da. Eskabide-orri horren bidez, hautaketa-prozesuan parte hartzea eskatuko da, egiaztagirien kopia aurkeztu beharrik gabe, bai parte-hartzeko eskakizunak bai, bere kasuan, alegatutako meritua, Epaimahaiak edo Giza Baliabideen Buruzagitzak horretarako eskatzen duten momentuan egiaztatu beharko dituzte-eta.

Eskabide-orriak aurkezteko epean alegatu edo justifikatzen ez diren meritua ez dira baloratuko.

Eskabide-orrian ariketak egiteko aukeratu den hizkuntza ofiziala, euskara ala gaztelania, adierazi beharko da.

Eskabideak aurkezteko epea hogeita egun naturalekoa izango da, dagokion deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu den biharamunetik aurrera zenbaita.

Indarrean dagoen Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan xedatutakoaren arabera, eskabide-orrietan akatsik egonez gero, 10 eguneko epean hutsegitea zuzendu dezan eskatuko zaio interesdunari. Nolanahi ere, ohartaraziko zaio hala egiten ez bada eskabidea artxibatu egingo dela bestelako tramiterik gabe.

Laugarrena. — Izangaiak onartzea

Hautaketa-prozesuko eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, Alkate-Udalburuak ebazpena emango du izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta hautazko azken kasu honetan, baztertzeko arrazoia adieraziko da. Ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Udaleko Iragarki-taulan eta webgunean (deialdiaren atal murriztuan) argitaratuko da eta bertan adieraziko dira ariketak egingo diren lekua eta data, hala nola izendatutako Hautaketa-epaimahaiak.

Onartuen behin-behineko zerrendaren aurka, erreklamazioak egiteko eta, bere kasuan, eskabideak izan ditzakeen akatsak zuzentzeko 10 egun balioduneko epea emango da.

Kasuan kasu, behin-behineko zerrendei buruz aurkezten diren alegazioak ikusita, Alkateak beste ebazpen bat emango du; horren bidez, onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda onartuko da, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Udaleko Iragarki-taulan eta webgunean (deialdiaren atal murriztuan) argitaratuko da. Alegaziorik aurkeztu ezean, onartutako eta baztertutako izangaien zerrenda behin betiko bihurtuko da berehala.

Behin betiko onartuen eta baztertuen zerrendak onesten dituen ebazpenaren aurka, dagokion errekursoak aurkez daitezke, Herri Administrazioen Prozedura Erkidearen Legeak xedatutakoaren arabera.

Izangaiak onartuen zerrenda egokian sartzeak ez du esan nahi prozesua izapidetu bitartean Epaimahaiaren erabakiz baztertuta ez geratzeko eskubidea dutenik, proba guztiak egin zein ez egin, datuak edo aurkeztutako dokumentuak egiaztatzearen ondorioz ikusten bada lehiakideak ez dituela biltzen onartua izateko eta hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatutako baldintza guztiak. Kasu horretan, Epaimahaiak interesduna baztertuko du, berori entzun ondoren eta baztertzeko arrazoiak idatziz jakinarazi ondoren.

**Bosgarrena. — Hautaketa-epaimahaiak**

Oposizioko probak zehazteko, garatzeko eta ebaluatzeko eta merituak baloratzeko, organo deitzaileak Hautaketa Organoa izendatuko du, eta berorren titularrak eta ordezkioak izendatuko ditu.

Hautaketa Epaimahaia eratuko da EAeko Poliziaren uztailaren 17ko 4/1992 Legean, EAeko Hautaketa eta Prestakuntza-araudia onesten duen 315/1994 Dekretuan eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan ezarritakoaren arabera. Izenezko osaera hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendarekin batera, aurretiaz Alkate-Udalburuak emandako ebazpenez izendatu ondoren.

Hautaketa Epaimahaiak zuzenbidez osatzen duten kideen kopurua ezin izango da bost kideetik beherakoa izan. Ezin izango da eratu ez eta jardun ere, kideetako hiru, gutxienez, ez badaude, eta titularrak edo ordezkioak izan daitezke. Kasu guztietan, Presidenteak eta Idazkariak edo erregelamendu bidez delegatuta ordezkatzeko dituztenek egon behar dute.

Hautaketa Epaimahaia zuzenbidez osatzen duten kideen erdiak, gutxienez, hornitu nahi den plazan sartzeko eskatzen den ezagutza-arlo bereko titulazioa izan behar du eta kide guztiek hornitu beharreko plazan sartzeko eskatutako ikasketa-maila bera edo goragokoa izan behar dute.

Kasu guztietan, Epaimahaietan EAeko Poliziaren eta Larrialdietako Ikastegiak izendatutako ordezkari bat egongo da.

Egokia ez dela behar bezala justifikatuta egon ezean, epaimahaia edo hautaketa-organoko teknikoak behar bezalako gaitasuna, eskumena eta prestakuntza duten emakumeek eta gizonek osatu behar dute, orekaturik. Eta egokia ez dela justifikatuta egon ezean, sexu bakoitzeko ordezkariak %40 izango dira, gutxienez.

Epaimahaiko kideek ez dute parte hartu behar, Alkate-Udalburuari jakinaraziz, eta izangaiek errekurtsioa aurkez diezaiekete, indarrean dagoen Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Erabakiak bertaratutako Epaimahaiko kideen aldeko botoen gehiengoaz hartuko dira, eta berdinketarik egonez gero Presidentearen kalitatezko botoak ebatziko du. Epaimahaiko kide guztiek hitza eta botoa izango dituzte, Idazkariak izan ezik, hitza izango baitu baina ez botorik.

Epaimahaiak bere lanetan, hautaketa-prozesuaren proba guztietarako edo batzuetarako, aholkulariez baliatzea erabaki dezake; aholkulariok beren espezialitate teknikoaren esparrura mugatuko dira eta beren espezialitateetan aholkularitza eta laguntza teknikoak eskainiko dituzte, hitzarekin baina botorik gabe.

Epaimahaiak autonomia funtzional osoa izango du, eta Oinarri hauen aplikazioari eta interpretazioari buruz sortzen diren zalantzak eta galderak ebatzeko eskumena izango du, bai eta hautaketa-prozesua burutzeko beharrezkoak diren erabaki guztiak hartzeko, Oinarri hauetan edo araudi aplikagarrian aurreikusita ez dagoen guztiari dagokionez.

Epaimahaiak bermatuko du izangaiek hautaketa-prozesuaren barruan euren espedientearen berri izateko duten eskubidea.

Hautaketa Epaimahaietan parte hartzeagatik asistentziak eta kolaborazioak, zerbitzu arrazoiengatik indemnitazioei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan xedatutakoaren arabera arautuko dira.

Seigarrena. — Hautaketa-prozedura

Deitutako lanpostuaren izaeraren arabeko ezagutza-proba objektiboan bitartez, meritu jakin batzuen eta egiaztatu ezin diren esperientzia-maila batzuen balorazioa egokia izanik, izangaiek oposizio eta lehiaketa sistemaz hautatuko dira, eta oposizio eta lehiaketa prozedurak bata bestearen atzetik burutuko dira, bertan parte hartuko dutenen gaitasuna eta ondorioztatzen den lehentasun hurrenkera zehazteko.

**A) OPOSIZIO-FASEA**

EAEko Poliziaren Hautaketa eta Prestakuntza-araudia arautzen duen uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuaren 8. artikuluan xedatutakoari jarraiki, oposizioan gaitasun-proba teorikoak edota praktikoak egingo dira, izangaien gaitasuna eta euren arteko lehenetasun hurrenkera zehazteko.

Oposizioan proba teoriko-praktikoa, derrigorrezkoa eta baztertzaila, egin beharko da.

Lehenengo proba (derrigorrezkoa eta baztertzaila)

Proba teoriko-praktikoan, Epaimahaiak ezarritako gehieneko epean, Galdakaoko Udaltzaingoaren egiturari, antolamenduari, plangintzari, eginkizunei eta zerbitzuei buruzko galdera-sorta erantzun beharko da idatziz.

Lor daitekeen gehieneko nota 5,50 puntukoa izango da, eta mozketa-nota 2,75en ezarriko da.

Proba Epaimahaiak proposatuko du justu egin baino lehentxoago eta berak zehaztuko du zenbat denbora iraungo duen.

B) LEHIAKETA-FASEA

Oposizio-fasea gainditzen duten izangaiak lehiaketa-fasera pasatuko dira. Bertan Kalifikazio-epaimahaiak oinarri hauetan ezarritako merituak baloratuko ditu, eskabide-orrian alegatu badira, eta bestelako meriturik ezin izango da baloratu. Eskabide-orriak aurkezteko epea amaitzen den datara arte ziurtatutako merituak soilik baloratuko dira.

Lehiaketa-fasea ez da baztertzaila izango eta lor daitekeen gehieneko puntuazioa ezin izango da erabili oposizioko ariketak gainditzeko edo horretan lortutako kalifikazioak aldatzeko, EAEko Poliziaren Hautaketa eta Prestakuntza-araudia arautzen duen uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuaren 18. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Lehiaketa-fasean, ondoko arauak bete beharko dira:

- a) Izangaiak, eskabide-orriak aurkezteko epearen barruan alegatutako merituak jasotzen dituen adierazpena aurkeztu beharko dute.
- b) Alegatu ez diren eta eskabide-orriak aurkezteko epea amaitzen den momentuan ziurtatu ez diren merituak ezin izango dira ezein kasutan baloratu.
- c) Ez dira inola ere baloratuko funtzionario izateko hautaketa-prozesuetako nahitaezko ariketa gisa aurreikusitako prestakuntzako ikastaroak, ezta baloratutako beste ikastaro batzuen eduki berbera dutenak ere.
- d) Merituak, eskabideak aurkezteko epearen azken eguna gehieneko erreferentzia gisa hartuta baloratuko dira.

2. Deialdi honetan, Hautaketa Epaimahaiak ondoko merituak baloratuko ditu:

1) Gradu pertsonala:

- Eskatutako lanpostuak duen maila bera: 0,40 puntu.
- Eskatutako lanpostuak duen maila bat gutxiagokoa: 0,27 puntu.
- Eskatutako lanpostuak duen bi maila gutxiago edo are gutxiagokoa: 0,14 puntu.

Lor daitekeen gehieneko puntuazioa 0,40 puntukoa izango da.

2) Prestakuntza eta Hobekuntza ikastaroak eta titulazio akademikoak:

- a) Ondoko gaiekin lotutako prestakuntza-ikastaroak egin izanagatik: Zigor-zuzenbidea, Administrazio-zuzenbidea, Trafikoa, Herritarren Arreta, Tresnen erabilera (Armak, ibilgailuak, aplikazio informatikoak...), Gatzaka-konponketa eta Epaimahaiak bete beharreko lanpostuarekin zerikusi zuzena dutela ebazten dituenak, eta zentro ofizialek edo unibertsitateek antolatutakoak, edo eurek emandakoak edo eurek emandako homologazioa dutenak.
 - 20 ordu arteko ikastaroak: 0,08 puntu.
 - 21 ordu eta 50 ordu arteko ikastaroak: 0,13 puntu.



- 51 ordu eta 100 ordu arteko ikastaroa: 0,21 puntu.
- 100 ordutik gorako ikastaroa: 0,26 puntu.
- b) Eskatzen dena baino goragoko titulazioa izateagatik: 0,26 puntu.
Atal honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa 1,30 puntukoa izango da.
- 3) *Antzintasuna*:
 - Udaltzaingoaren Ofizialorde gisa edozein Administrazio Publikotan benetan emandako zerbitzuengatik, 0,05 puntu emango dira hilabete oso bakoitzeko, gehienez 2,30 puntu arte.
 - Udaltzaingoaren Agente Lehen (Kabo) gisa edozein Administrazio Publikotan benetan emandako zerbitzuengatik, 0,005 puntu emango dira hilabete oso bakoitzeko, gehienez 0,50 puntu arte.Atal honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa 2,80 puntukoa izango da.

C) EUSKARAREN EZAGUTZAREN BALORAZIOA

Euskararen ezagutza EAeko Poliziaren Hautaketa eta Prestakuntza-araudia onesten duen uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuaren 19. artikuluan ezarritakoaren arabera baloratuko da, ondoren adierazten den baremoari jarraiki:

- 3. HE: 1,3 puntu.
- 2. HE: 0,9 puntu.
- 1. HE: 0,5 puntu.

Atal hau HAEEK emandako ziurtagirien bitartez edo euskararen ezagutza egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliozkotzeko eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren mailekin parekatzeko indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera beste ziurtagiri baliokideen bitartez egiazta daiteke.

Zazpigarrena. — Epaimahaiaren proposamena

Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa, lehiaketa eta oposizio faseetan lortutako emaitzen batura izango da, eta horri euskararen ezagutza meritu gisa izan duen balorazioa gehituko zaio; gainera, izangaien lehentasun hurrenkera zehaztuko du.

Hautaketa-prozesu bakoitza amaitutakoan, dagokion Epaimahaiak Udaleko Iragar-ki-taulan argitaratuko ditu gainditu duten izangaien behin betiko kalifikazioak, lortutako puntuazioaren hurrenkeran. Gainera, berriaz aipatuko ditu hautatutako pertsonak.

Epaimahaiak proba teoriko-praktikoa gainditu duten hautatutako izangaiak alegatutako merituak soilik baloratuko ditu.

Merituak egiaztatu beharko dira Zuzenbidean onartutako edozein modutan, eta bereziki honela:

- a) Titulazio akademiko ofizialetarako, tituluaren fotokopia edo eskubideak abonatu izanaren frogagiria.
- b) Zerbitzuak emateari dagozkion merituak Herri Administrazioen Agiri bidez egiaztatu beharko dira; gainera, adierazi beharko da lanpostuaren edo plazaren izena, zein talderi dagokion, plaza hornitzeko eskatutako titulazio-eskakizunak zein diren eta zerbitzu horretan zenbat denbora eman den.
- c) Interesdunek Galdakaoko Udalean emandako zerbitzuak alegatu ahal izango dituzte, baina ez dituzte egiaztatu behar izango, horiek Administrazio honek ofizioz zenbatu ditzake eta.
- d) Prestakuntza-ikastaroetarako, prestakuntza eman duen erakundearen egiaztagirien edo tituluaren fotokopia. Titulu horretan adierazi beharko dira erakunde antolatzailearen izena, ikastaroaren izena, prestakuntza-egitaraua, hori adierazi ahal balitz, eta ikastaroaren iraupena. Orduan iraupena zehaztuko ez balitz, Epaimahaiak erabakiko du meritu hori baloratu ala ez.



Epaimahaiak erabakiko balu plazara aurkeztutako izangai bakar batek ere ez duela lanpostua betetzeko eskatzen diren gutxienerako baldintzak betetzen, lanpostua bete gabe utz dezake.

Sailkapenaren hurrenkeran izan daitezkeen berdinketak ondoko irizpideen arabera ezartzen den hurrenkeran ebatziko dira:

- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea.
- Puntuaziorik onena proba teoriko-praktikoan.
- Puntuaziorik handiena Galdakaoko Udaltzaingoa duen antzinasun-atalean.

Hautaketa-sistema osatzen duten ariketen kalifikazioa eta merituen balorazioa amaitu ondoren, Epaimahaiak Iragarki-taulan eta webgunean jakinaraziko ditu lehiaketa gainditu duten izangaien izenak, lortutako puntuazioaren hurrenkeran, handienetik txikienera.

Berariaz adierazten da Epaimahaiak ezin izango dituela hautatu deitutako plaza kopurua baino izangai gehiago. Muga hori urratzen duten proposamenak zuzenbidean erabat baliogabeak izango dira.

Proposatutako izangaiak, aipatutako jakinarazpena argitaratu denetik hasita 20 egun naturaleko epearen barruan, lehiaketan parte hartzeko Oinarrietan eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko, aurretiaz eskabidean dagoen adierazpenean alegatutako jatorrizko egiaztagiria aurkeztuko ditu.

Adierazitako epearen barruan eta ezinbesteko kasua ez bada, izangaiak dokumentazioa aurkeztuko ez balu edo eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatuko ez balu, ezin izango da izendatua izan, eta haren jarduera guztiak baliogabetuta geratuko dira. Kasu horretan, organo eskudunak proposamen berria egingo du, hautaketa-prozesua gaindituta, azken puntuazioaren hurrenkeran hurrengo lekuan dagoenaren edo daudenaren alde.

Zortzigarrena. — *Praktiketako funtzionarioaren izendapena*

Halaber, Epaimahaiak Alkatetzari bidaliko dio gainditutako pertsonen zerrenda, puntuazioaren hurrenkeraren arabera, bai eta hautatutako pertsonak praktiketako funtzionario gisa izendatzeko proposamena, bidezkoa bada.

EAEko Polizia osatzen duten gorputzen eskaletan eta kategorietan sartzeko hautaketa-sistemak osatuko dira, hautaketa-prozesuaren fase bat gehiago gisa, prestakuntza-ikastaroak eta praktikaldiak eginez.

Alkate-Udalburuak, Epaimahaiak proposaturik, oposizio-lehiaketa fasean puntuaziorik handiena lortu duen izangaia praktiketako funtzionario izendatuko du eta egoera horretan egongo da prestakuntza-ikastaroaren hasieratik karrerako funtzionario izendatua edo prozesutik baztertua izan arte. Nolanahi ere, prestakuntza-ikastaroaren eta praktikaldiaren iraupena ez da 6 hilabetetik gorakoa izango.

Prestakuntza-ikastaroaren eta praktikaldiaren hasierarako zehaztu den data, praktiketako funtzionario izendapenarekin batera, Galdakaoko Udaleko Iragarki-taulan jakinaraziko da.

Eskakizunak aurreko paragrafoan ezarritako eran egiaztatuak izan ondoren, Epaimahaiak Galdakaoko Udalaren organo eskudunari eskatuko dio praktiketako funtzionario gisa izendatzeko proposamena egin dezan.

Organo eskudunak praktiketako funtzionario izendatuko ditu Kalifikazio-epaimahaiak proposatutako izaera horretako izangaiak.

Praktiketako funtzionario izendatutako pertsonak EAEko Poliziaren 4/1992 Legearen 54.2 artikuluan adierazitako ordainsariak jasoko ditu.

Bederatzigarrena. — *Prestakuntza-ikastaroa eta praktikaldia*

Prestakuntza-ikastaroak eta praktikaldiak derrigorrezkoak eta baztertzailak izango dira banan-banan hartuta eta horietan hasten ez bada edo gainditzen ez baditu automatikoki izangaia hautaketa-prozesutik baztertu eta sartzeko izan zitezkeen eskubide guztiak galduko lituzke.



EAEko Polizia osatzen duten gorputzen eskaletan eta kategorietan sartzeko hautaketa-sistemak osatuko dira, hautaketa-prozesuaren fase bat gehiago gisa, prestakuntza-ikastaroak eta praktikaldiak eginez.

Prestakuntza-ikastaroa derrigorrezkoa eta baztertzalea izango da, eta ezarritako ikasketa-planaren arabera egingo den hautapen izaerako ikastaro akademikoa izango da bertan aurreikusten den iraupenaz. Ikastaroaren hasiera EAEko Polizia Ikastegiaren ebazpenaren arabera xedatuko da.

Hautaketa-prozesu honi dagokionez, EAEko Poliziaren uztailaren 17ko 4/1992 Legean eta EAEko Poliziaren Hautaketa eta Prestakuntza-araudia onesten duen uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuan xedatutakoa beteko da.

Hautaketa-prozesuaren fase honekin zerikusia duten aspektu guztietarako, prestakuntza-ikastaroarekin bezala, EAEko Poliziaren uztailaren 17ko 4/1992 Legean eta EAEko Poliziaren Hautaketa eta Prestakuntza-araudia onesten duen uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuan xedatutakoa beteko da.

Organo deitzailearen ebazpenez, praktikaldia hasi aurretik zehaztuko dira praktiketako organo erantzulea, ebaluazio-sistema, balorazio-arduradunak, iraupena, destinoko atala, azken balorazioa eta kalifikazioa eta hautaketa-prozesuaren fase hau behar bezala baloratzeko zehaztu behar diren bestelako atal guztiak.

Prestakuntzako hautapen-ikastaroa eta praktikaldia amaitu ondoren, Ikastegiko Zuzendaritzak izangai bakoitzaren gaitasunari eta baldintzei buruzko txostena egingo du, eta hautaketa-prozesuko Kalifikazio-epaimahaiari aurkeztuko zaio. Beronek, proposamen hori ikusita, Alkate-Udalburuari bidezko proposamena aurkeztuko dio dagokion zentzuan.

Hautaketa-prozesuaren behin betiko sailkapena, oposizio-fasean eta prestakuntza-ikastaroan eta praktikaldian lortutako kalifikazioen baturaren ondorioa izango da.

Hamargarrena. — Behin betiko izendapena

Izendapenerako, ezinbesteko baldintza izango da praktikaldian gaitasun-adierazpena izatea.

Hautaketa-prozesuaren behin betiko sailkapenaren hurrenkera, oposizio eta lehiaketa fasean, prestakuntza-ikastaroan eta praktikaldian lortutako kalifikazioak baturik egingo da.

315/1994 Dekretuaren 51.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, praktikaldian amaitu ondoko bi hilabeteko epean, organo eskudunak praktikaldia gainditu duen izangaia karrerako funtzionario (Ofizialordea) izendatuko du, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udaleko Iragarki-taulan argitaratuko da eta interesdunari jakinaraziko zaio.

Izendatutako pertsonak, izendapena argitaratu den bihamunetik hasita gehienez 10 eguneko epean jabetzaz hartu beharko du. Hala egingo ez balitz, ezinbestekoren bat gertatu ezik, jarduera guztiak ondorioz gabe geratuko dira, eta karrerako funtzionario izaera eskuratzeko izan ditzakeen eskubide guztiak galduko lituzke.

Hamaikagarrena. — Inpugnazioak

Deialdi hau nahiz bere ondorioz eta Kalifikazio-epaimahaien jardueraren ondorioz sortzen diren administrazio egintza guztiak aurkaratu ahal izango dira, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako kasu eta moduetan.

**GALDAKAOKO UDALAREN UDALTZAINGOAN ARGIKETA AGENTE PLAZA HUTS BAT LEHIAKETA SISTEMAZ BETETZEKO OINARRI BEREZIAK****Lehenengoa. — Deialdiaren helburua**

Deialdi honen helburua da lehiaketa sistemaz Galdakaoko Udalaren lanpostu-zerrendan hutsik dagoen Argiketa Agente plaza bat hornitzea (Lanpostuaren kodea: 423, 3. do-tazioa), Administrazio Berezia Eskalakoa, Zerbitzu Bereziak azpieskalakoa, Udaltzaingoaren taldekoa, C Taldekoa, C1/C2 azpitaldekoa eta derrigortasun-data beteta duen 2. hizkuntza-eskakizunarekin.

Plaza hori C1 Azpitaldeari dagokion soldataz gain, lanpostu-mailako osagarriaz, be-rariazko osagarriaz, aparteko ordainsariak, hirurtekoak eta gainerako zerbitzu-sariez hornituta dago, indarrean dagoen legeriari jarraiki eta Korporazio honen Udaltzak har-tutako edo har ditzakeen erabakien arabera.

Plazaren eginkizunak dira indarrean dagoen legerian eta dagozkion Udal Erabakie-tan ezarrita daudenak.

Bigarrena. — Izangaiek bete beharreko baldintzak

A) Deialdi honetan Galdakaoko Udalean Udaltzaingoaren Agente lanpostuak bete-zen dituzten karrerako funtzionarioek parte har dezakete, egoera administratiboa edo-zein dutela ere, etendura irmoak izan ezik, eta etenaldiak dirauen bitartean ezin izango dute parte hartu. Lehiaketan parte hartzea aukeratu duten karrerako funtzionarioek es-katutako baldintza orokorrak eta parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean deialdian zehaztutako eskakizunak bete beharko dituzte.

B) Galdakaoko Udaltzaingoaren Agente plazan azken lantokian zerbitzuak bi urte benetan egin izanaren eskakizuna betetzen duten Agenteek soilik parte har dezakete.

C) Epaimahaiak zehaztutako eran, Euskarako 2. hizkuntza-eskakizuna dokumentu bidez egiaztatu beharko dute izangaiek, horretarako HAEEK emandako zuzentarauei jarraituz, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 99.1 artikuluan ezarritakoaren ara-bera.

Hirugarrena. — Eskabide-orrien aurkezpena

Hautaketa-prozesu honetan parte hartzeko eskabideetan, Deialdiaren Oinarrietan ezarritako eskakizun guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute izangaiek. Eska-bide horiek Esan Bulegoan eskura egongo den eredu ofizial normalizatuan aurkeztuko dira, Alkate-Udalburuari zuzenduta, Deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuta agertzen den biharamunean zenbatzen hasita 20 egun naturaleko epean.

Era berean, eskabide-orriak urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehaz-ten duen eran ere aurkez daitezke.

Eskatzaileek adierazpen bat erantsi beharko dute eskabide-orrian, alegatu diren me-rituen zerrenda lehiaketa-fasean balora dadin. Eskakizunak eta alegatutako merituen betetzeari buruzko adierazpena, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabide-orrian zerrendan jarriz eta argi identifikatuz egin beharko da. Eskabide-orri horren bidez, hauta-keta-prozesuan parte hartzea eskatuko da, egiaztagirien kopia aurkeztu beharrik gabe, bai parte-hartzeko eskakizunak bai, bere kasuan, alegatutako merituen, Epaimahaiak edo Giza Baliabideen Buruzagitzak horretarako eskatzen dituzten momentuan egiaztatu beharko dituzte-eta.

Eskabide-orriak aurkezteko epean alegatu edo justifikatzen ez diren merituen ez dira baloratuko.

Eskabide-orrian ariketak egiteko aukeratu den hizkuntza ofiziala, euskara ala gazte-lerria, adierazi beharko da.

Eskabideak aurkezteko epea hogeitun egun naturalekoa izango da, dagokion deialdia-ren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu den biharamunetik aurrera zenba-tuta.



Indarrean dagoen Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan xedatutakoaren arabera, eskabide-orrietan akatsik egonez gero, 10 eguneko epean hutsegitea zuzendu dezan eskatuko zaio interesdunari, eta nolana ere, ohartaraziko zaio hala egiten ez badu eskabidea artxibatu egingo dela bestelako tramiterik gabe.

Laugarrena. — Izangaiak onartzea

Hautaketa-prozesuko eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, Alkate-Udalburuak ebazpena emango du izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta hautazko azken kasu honetan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Ebazpen hori, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Udaleko Iragarki-taulan eta webgunean (deialdiaren atal murriztuan) argitaratuko da, eta bertan adieraziko dira ariketak egingo diren lekua eta data, hala nola izendatutako Hautaketa-epaimahaia.

Onartutako behin-behineko zerrendaren aurka erreklamazioak egiteko eta, bere kasuan, eskabideak izan ditzakeen akatsak zuzentzeko 10 egun balioduneko epea izango da.

Kasuan kasu, behin-behineko zerrende buri aurkezten diren alegazioak ikusita, Alkateak beste ebazpen bat emango du; horren bidez, onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda onartuko da, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Udaleko Iragarki-taulan eta webgunean (deialdiaren atal murriztuan) argitaratuko da. Alegaziorik aurkezte ezean, onartutako eta baztertutako izangaien zerrenda behin betiko bihurtuko da berehala.

Behin betiko onartuen eta baztertuen zerrendak onesten dituen ebazpenaren aurka, dagozkion errekursoak aurkez daitezke, Herri Administrazioen Prozedura Erkidearen Legeak xedatutakoaren arabera.

Izangaiak onartuen zerrenda egokian sartzeak ez du esan nahi prozesua izapidetu bitartean Epaimahaiaren erabakiz baztertuta ez geratzeko eskubidea dutenik, proba guztiak egin zein ez egin, datuak edo aurkeztutako dokumentuak egiaztatzearen ondorioz ikusten bada lehiakideak ez dituela biltzen onartua izateko eta hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatutako baldintza guztiak. Kasu horretan, Epaimahaiak interesduna baztertuko du, berori entzun ondoren eta baztertzeko arrazoiak idatziz jakinarazi ondoren.

Bosgarrena. — Hautaketa-batzordearen eraketa, osaera eta jardura

Oposizioko probak zehazteko, garatzeko eta ebaluatzeako eta merituak baloratzeko, organo deitzaileak Hautaketa Organoa izendatuko du, eta berorren titularrak eta ordezkariak izendatuko ditu.

Hautaketa Epaimahaia eratuko da EAeko Poliziaren uztailaren 17ko 4/1992 Legean, EAeko Hautaketa eta Prestakuntza-araudia onesten duen 315/1994 Dekretuan eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan ezarritakoaren arabera. Izenezko osaera hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendarekin batera, aurretiaz Alkate-Udalburuak emandako ebazpenez izendatu ondoren.

Hautaketa Epaimahaiak zuzenbidez osatzen duten kideen kopurua ezin izango da bost kide baino gehiago izan. Ezin izango da eratu ez eta jardun ere, kideetako hiru, gutxienez, ez badaude, eta titularrak edo ordezkariak izan daitezke. Kasu guztietan, Presidenteak eta Idazkariak edo erregelamendu bidez delegatuta ordezkatzeko dituztenek egon behar dute.

Hautaketa Epaimahaia zuzenbidez osatzen duten kideen erdiak, gutxienez, hornitu nahi den plazan sartzeko eskatzen den ezagutza-arlo bereko titulazioa izan behar du eta kide guztiek hornitu beharke plazan sartzeko eskatutako ikasketak-maila bera edo goragokoa izan behar du.

Kasu guztietan, Epaimahaietan EAeko Poliziaren eta Larrialdietako Ikastegiak izendatutako ordezkari bat egongo da eta Euskararen probarako HAEek izendatutako pertsona bat.



Egokia ez dela behar bezala justifikatuta egon ezean, epaimahaia edo hautaketa-organo teknikoa behar bezalako gaitasuna, eskumena eta prestakuntza duten emakumeek eta gizonek osatu beharko dute, orekaturik. Eta egokia ez dela justifikatuta egon ezean, sexu bakoitzeko ordezkariak %40 izango dira, gutxienez.

Epaimahaiko kideek ez dute parte hartu beharko, Alkate-Udalburuari jakinaraziz, eta izangaiek errekurtsua aurkez diezaiekete, indarrean dagoen Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Erabakiak bertaratutako Epaimahaiko kideen aldeko botoen gehiengoaz hartuko dira, eta berdinketarik egonez gero Presidentearen kalitatezko botoak ebatziko du. Epaimahaiko kide guztiak hitza eta botoa izango dituzte, Idazkariak izan ezik, hitza izango baitu baina ez botorik.

Epaimahaiak bere lanetan, hautaketa-prozesuaren proba guztietarako edo batzuetarako, aholkulariez baliatzea erabaki dezake; aholkulariok beren espezialitate teknikoan esparrura mugatuko dira eta beren espezialitateetan aholkularitza eta laguntza teknikoa eskainiko dituzte, hitzarekin baina botorik gabe.

Epaimahaiak autonomia funtzional osoa izango du, eta Oinarri hauen aplikazioari eta interpretazioari buruz sortzen diren zalantzak eta galderak ebatzeko eskumena izango du, bai eta hautaketa-prozesua burutzeko beharrezko erabaki guztiak hartzeko, Oinarri hauetan edo araudi aplikagarrian aurreikusita ez dagoen guztiari dagokionez.

Epaimahaiak bermatuko du izangaiek hautaketa-prozesuaren barruan euren espedientearen berri izateko duten eskubidea.

Hautaketa Epaimahaietan parte hartzeagatiko asistentziak eta kolaborazioak, zerbitzu arrazoiengatiko indemnitazioei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan xedatutakoaren arabera arautuko dira.

Seigarrena. — Merituen balorazioa

Horniketa-prozesu hau meritu-lehiaketa sistemaz egingo da, azterketa eginez eta eskabideak aurkezteko epean izangaiek azaldutako merituak baloratuz, eta ondoko oinarrien arabera eta bestelako meriturik ezin izango da baloratu.

Merituen balorazioa Oinarri hauetan ezarritako meritu orokorrak eta bereziak kontuan hartuz egingo da, ondoko baremoaren arabera:

A) MERITU OROKORRAK (1. FASEA)

Lehenengo fase honetan merituak baloratuko dira, ondoren ezarritako baremoaren arabera, 4,5 puntuko gehieneko mugarekin eta mozketak-nota 2,25 puntukoa izango da.

1. Gradu pertsonalaren balorazioa:

Atal hau gehienez puntu bat arte baloratuko da ondoko eran:

- Eskatutako lanpostuak duen maila baino gradu pertsonal handiagoa: 0,40 puntu.
- Eskatutako lanpostuak duen maila bereko gradu pertsonala: 0,27 puntu.
- Eskatutako lanpostuak duen maila baino gradu pertsonal txikiagoa: 0,14 puntu.

Lor daitekeen gehieneko puntuazioa 0,40 puntukoa izango da.

2. Antzintasuna:

- Udaltzaingoaren Argiketa Agente gisa edozein Administrazio Publikotan benetan emandako zerbitzuengatik, 0,05 puntu emango dira hilabete oso bakoitzeko, gehienez 2,30 puntu arte.
- Udaltzaingoaren Agente gisa edozein Administrazio Publikotan benetan emandako zerbitzuengatik, 0,005 puntu emango dira hilabete oso bakoitzeko, gehienez 0,50 puntu arte.

Atal honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa 2,80 puntukoa izango da.



3. *Lanpostuaren eginkizunekin lotutako prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak:*

- a) Ondoko gaiekin lotutako prestakuntza-ikastaroak egin izanagatik: Zigor-zuzenbidea, Administrazio-zuzenbidea, Trafikoa, Herritarren Arreta, Tresnen erabilera (Arma, ibilgailuak, aplikazio informatikoak...), Gatazka-konponketa eta Epaimahaiak bete beharreko lanpostuarekin zerikusi zuzena dutela ebazten dituenak, eta zentro ofizialek edo unibertsitateek antolatutakoak edo eurek emandakoak edo eurek emandako homologazioa dutenak.
- 20 ordu arteko ikastaroak: 0,08 puntu.
 - 21 ordu eta 50 ordu arteko ikastaroa: 0,13 puntu.
 - 51 ordu eta 100 ordu arteko ikastaroa: 0,21 puntu.
 - 100 ordutik gorako ikastaroa: 0,26 puntu.

- b) Eskatzen dena baino goragoko titulazioa izateagatik: 0,26 puntu.

Atal honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa 1,30 puntukoa izango da.

Merituak baloratuko dira eskabideak aurkezteko epea amaitu den data erreferentzia-tzat hartuta eta eskabidearekin batera doan adierazpenean aipatuko dira.

B) MERITU BEREZIAK (2. FASEA)

Argiketa Agente lanpostuaren ezaugarriei egokitutako meritu bereziak egiaztatu eta baloratuko dira.

Meritu berezien fase honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa 5,5 puntukoa izango da eta mozketak-nota 2,75 puntukoa izango da.

Horretarako, izangaiek ondokoa egin beharko dute:

- a) Balorazio Batzordeak proba egin baino lehentxeago erabakitako kasuari buruzkoa izango den Argiketa erredaktatu.

Atal honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa 2,75 puntukoa izango da eta mozketak-nota 1,38 puntukoa izango da.

- b) Aipatutako Batzordeak proposaturik, lanpostuaren beraren eginkizunei buruzko galdera-sortari erantzun. Galderak adierazitako momentu berean zehaztuko dira, eta oinarri hauekin batera emandako I. Eranskinean deskribatzen den marko arauemaileari buruzkoak izango dira.

Atal honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa 2,75 puntukoa izango da eta mozketak-nota 1,38 puntukoa izango da.

Ebazpen-proposamena, bi faseen azken emaitzak baturik, puntuaziorik handiena lortu duen izangaiari egokitu beharko zaio.

C) EUSKARA PROBA

2. Hizkuntza-eskakizuna egiaztatu beharko da Epaimahaiak zehaztutako eran, horretarako HAEEK emandako zuzentzauei jarraituz, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 99.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Ariketa hau kalifikatuko da Gai ala Ez Gai, eta ariketa honetan izangaiek gai izateko kalifikazioa lortu beharko dute.

Ariketa hau ez dute egin beharrik izango HAEEK emandako 2. Hizkuntza eskakizunaren Egiaztagiria edo apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 41. Artikuluan, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren 3. artikuluan eta hurrengoetan eta apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan aipatzen diren Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C-1 mailarekin parekatuta dauden euskararen ezagutzako tituluetakoa bat edo egiaztagiri ofizialetakoren bat dutenek, ariketa hasi aurretik, dagokion ziurtagiria aurkeztuz, hala egiaztatu badute.

Zazpigarrena. — Gainditu dutenen zerrendak

Izangaien baremazioa amaitu ondoren, Batzordeak gainditu dutenen zerrendak argitaratuko ditu, puntuazio hurrenkeraz. Era berean, zerrenda horiek Korporazioko Presidenteari igorriko dizkio dagokion izendapen-proposamena ebatz dezan.



Deialdiaren ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Udaleko Iragarki-taulan eta webgune ofizialean argitaratuko da.

Zortzigarrena. — Lanpostua jabetzaz hartzea

Proposatutako izangaiek betetzen zuten lanpostua laga beharko dute lehiaketaren Ebazpena argitaratu den biharamunetik hasita hiru egun balioduneko epean eta bi lanpostuak herri berean badaude, lagatze-datatik zenbatzen hasita beste hiru egun balioduneko epean lanpostu berria jabetzaz hartu beharko dute.

Bederatzigarrena. — Inpugnazioak

Deialdi hau nahiz bere ondorioz eta Kalifikazio-epaimahaien jardueraren ondorioz sortzen diren administrazio egintza guztiak aurkaratu ahal izango dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako kasu eta moduetan.



**GALDAKAOKO UDALAREN PLANTILLAKO KARRERAKO FUNTZIONARIO BATEZ,
UDALTZAINGOAREN AGENTE LEHENAREN PLAZA BAT (KABOA),
BARNE PROMOZIOZ ETA OPOSIZIO-LEHIAKETA SISTEMAZ,
HORNITZEKO DEIALDIA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK**

Lehenengoa.— Deialdiaren helburua

Deialdi honen helburua da, Galdakaoko Udalaren Plantillako Agente Lehenaren (Kaboa) lanpostu hutsa jabetzaz hautatzea. Lanpostuaren Kodea 424, dotazioa 5.a, Administrazio Bereziko Eskalakoa, Zerbitzu Berezien Azpieskalakoa, Udaltzaingoaren taldekoa, C1 ordainsari Taldeari dagokion soldatarekin, destino-osagarria 18a eta 2. hiza-kuntza-eskakizun ez derrigorrezkoa, 2017ko uztailaren 11ko 1080/17 Alkate-dekretuz onetsitako eta 2017ko uztailaren 24ko 141. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako 2017ko Enplegu Publikoaren Eskaintzan dagoena.

Hornitzeko eskakizun jakin bat duten lanpostuak inoiz ere ezin izango dituzte hornitu, Oinarrietan aurreikusitako eran betetzen dutela egiaztatu ez duten izangaiek.

Epaimahaiak ezin izango du hautatu deitutako plaza kopurua baino izangai gehiago. Muga hori urratzen duten proposamenak erabat baliogabeak izango dira.

Hautaketa-prozesuko proba guztiak edo baten bat gainditu duten eta plazarik lortu ez duten izangaien zerrendarekin lan-poltsa bat sortuko da, Alkate-dekretuz onartutako Galdakaoko Udalaren lan-poltsak kudeatzeko irizpideen arabera.

Izangaien hautaketa barne-promozioko txandaz oposizio-lehiaketa sistemaz burutuko da eta hautaketa-prozesuko fase bat gehiago gisa osatuko da, prestakuntza-ikastaroa eta praktiketako epea eginez.

Plaza-kopurua, Alkate-Udalburuaren ebazpenaren bitartez, hautaketa-prozesuan hutsik geratzen diren lanpostuetara zabal daiteke eta deialdi honetara txerta daiteke. Zabaltze hori, edozein kasutan, gainditu duten pertsonen zerrenda argitaratzeko trami-tearen aurretik egin beharko da.

Deialdi honetan eta bere oinarrietan aurreikusita ez dagoen guztian, EAEko Polizia-ren Hautaketa eta Prestakuntza-araudia onesten duen uztailaren 19ko 315/1994 Dekre-tua aplikatuko da, eta berorren aldaketak onesten dituzten maiatzaren 21eko 111/2002 Dekretua eta otsailaren 17ko 36/2004 Dekretua.

Bigarrena.— Izangaiek bete beharreko eskakizunak

Hautaketa-prozesu honetan parte hartzeko, eta dagokion kategorian sartzeko gai-nerako eskakizun orokorrak bete beharko badira ere, karrerako funtzionarioek ondoko baldintzak bete beharko dituzte.

- a) Galdakaoko Udalaren karrerako funtzionario izaera izatea eta zerbitzu aktiboan egotea, dagokion Eskalaren beheko hurrengo kategorian, Agentearena izango den horretan.
- b) Agente kategorian benetan bi urteko zerbitzuak beteta izatea.
- c) Arau-hauste larria edo oso larria egin izanagatik zehatuta ez egotea, edo ezarri-tako zehapena ezeztatuta izatea.
- d) Dagokion Eskalan sartzeko eskatzen den Titulazio Akademikoaren jabe izatea.
- e) Hornitu beharreko lanpostuaren eginkizunak betetzea galarazten dion gaixota-sunik edo akats fisikorik ez izatea, ezarritako bazterketa medikuen koadroaren arabera, aurretiaz osasun-azterketak egin ondoren.
- f) Eskala eta Kategoria berera barne-promozioko txanda bidez sartzeko hiru deialdi baino gehiagotan parte hartu ez izana.
- g) Ezintasun edo bateraezintasuneko lege-auzitan sartuta ez egotea.
- h) Dolozko delituagatik zigortu izana ez izatea, ez Administrazio Publikoaren zerbi-tzutik banatua, ezta eginkizun publikoetarako desgaitua ere.

Hala ere, errehabilitazioaren onura aplika daiteke, zigor- eta administrazio-arauen arabera, lehiatzaileak dokumentu ofizial bidez egiaztatu badu.



- i) EAEko polizia-gorputzen batean sartzeko hautaketa-prozesuan baztertua ez izatea arau-hauste larria edo oso larria egin izanagatik, bazterketaren adierazpen-datatik zenbatuta preskripzio-eparean adinako aldia igaro ez bada.

Izangaiek aipatutako eskakizun guztiak izan behar dituzte, eskabide-orriak aurkezteko epea amaitzen den egunean, eta mantendu beharko dituzte Udal honen karrerako funtzionario gisa lanpostua jabetzaz hartzeko momentura arte.

Hirugarrena. – Eskabideak

Hautaketa-prozesu honetan parte hartzeko eskabideetan, Deialdiaren Oinarrietan ezarritako eskakizun guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute izangaiek. Eskabide horiek Esan Bulegoan eskura egongo den eredu ofizial normalizatuan aurkeztuko dira, Alkate-Udalburuari zuzenduta, Deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuta agertzen den biharamunean zenbatzen hasita 20 egun naturaleko epean.

Era berean, eskabide-orriak urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten duen eran ere aurkez daitezke.

Eskatzaileek adierazpen bat erantsi beharko dute eskabide-orrian, alegatu diren merituen zerrenda lehiaketa-fasean balora dadin. Eskakizunak eta alegatutako merituen izateari buruzko adierazpena, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabide-orrian zerrendan jarriz eta argi identifikatuz egin beharko da. Eskabide-orri horren bidez, hautaketa-prozesuan parte hartzea eskatuko da, egiaztagirien kopia aurkeztu beharrik gabe, bai parte-hartzeko eskakizunak bai, bere kasuan, alegatutako merituen, Epaimahaiak edo Giza Baliabideen Buruzagitzak horretarako eskatzen dituzten momentuan egiaztatu beharko dituzte-eta.

Eskabide-orriak aurkezteko epean alegatu edo justifikatzen ez diren merituen ez dira baloratuko.

Eskabide-orrian ariketak egiteko aukeratu den hizkuntza ofiziala, euskara ala gaztelania, adierazi beharko da.

Eskabideak aurkezteko epea hogeitun egun naturalekoa izango da, dagokion deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu den biharamunetik aurrera zenbatuta.

Indarrean dagoen Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan xedatutakoaren arabera, eskabideetan akatsik egonez gero, 10 eguneko epean hutsegitea zuzendu dezan eskatuko zaio interesdunari. Nolanahi ere, ohartaraziko zaio hala egiten ez badu eskabidea artxibatu egingo dela bestelako tramiterik gabe.

Laugarrena. – Izangaiek onartzea

Hautaketa-prozesuko eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, Alkate-Udalburuak ebazpena emango du izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta hautazko azken kasu honetan, baztertzeko arrazoia adieraziko da. Ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Udaleko Iragarki-taulan eta webgunean (deialdiaren atal murriztuan) argitaratuko da eta bertan adieraziko dira ariketak egingo diren lekua eta data, hala nola izendatutako Hautaketa-epaimahaiak.

Onartuen behin-behineko zerrendaren aurka, erreklamazioak egiteko eta, bere kasuan, eskabideak izan ditzakeen akatsak zuzentzeko, 10 egun balioduneko epea emango da.

Kasuan kasu, behin-behineko zerrendeia buruz aurkezten diren alegazioak ikusita, Alkateak beste ebazpen bat emango du; horren bidez, onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda onartuko da, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Udaleko Iragarki-taulan eta webgunean (deialdiaren atal murriztuan) argitaratuko da. Alegaziorik aurkeztu ezean, onartutako eta baztertutako izangaien zerrenda behin betiko bihurtuko da berehala.

Behin betiko onartuen eta baztertuen zerrendak onesten dituen ebazpenaren aurka, dagozkion errekursoak aurkez daitezke, Herri Administrazioen Prozedura Erkidearen Legeak xedatutakoaren arabera.



Izangaiak onartuen zerrenda egokian sartzeak ez du esan nahi prozesua izapidetu bitartean Epaimahaiaren erabakiz baztertuta ez geratzeko eskubidea dutenik, proba guztiak egin zein ez egin, datuak edo aurkeztutako dokumentuak egiaztatzearen ondorioz ikusten bada lehiakideak ez dituela biltzen onartua izateko eta hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatutako baldintza guztiak. Kasu horretan, Epaimahaiak interesduna baztertuko du, berari entzun ondoren eta baztertzeko arrazoiak idatziz jakinarazi ondoren.

Bosgarrena. — Hautaketa-epaimahaiak

Oposizioko probak zehazteko, garatzeko eta ebaluatzeke eta merituak baloratzeko, organo deitzaileak Hautaketa Organoa izendatuko du, eta berorren titularrak eta ordezkariak izendatuko ditu.

Hautaketa Epaimahaia eratuko da EAEko Poliziaren uztailaren 17ko 4/1992 Legean, EAEko Hautaketa eta Prestakuntza-araudia onesten duen 315/1994 Dekretuan eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan ezarritakoaren arabera. Izenezko osaera hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendarekin batera, aurretiaz Alkate-Udalburuak emandako ebazpenez izendatu ondoren.

Hautaketa Epaimahaiak zuzenbidez osatzen duten kideen kopurua ezin izango da bost kidetik beherakoa izan. Ezin izango da eratu ez eta jardun ere, kideetako hiru, gutxienez, ez badaude, eta titularrak edo ordezkariak izan daitezke. Kasu guztietan, Presidenteak eta Idazkariak edo erregelamendu bidez delegatuta ordezkatzeko dituztenek egon behar dute.

Hautaketa Epaimahaia zuzenbidez osatzen duten kideen erdiak, gutxienez, hornitu nahi den plazan sartzeko eskatzen den ezagutza-arlo bereko titulazioa izan behar du eta kide guztiek hornitu beharreko plazan sartzeko eskatutako ikasketak-maila bera edo goragokoa izan beharko dute.

Kasu guztietan, Epaimahaietan EAEko Poliziaren eta Larrialdietako Ikastegiak izendatutako ordezkari bat egongo da, eta euskararen probarako HAEK izendatutako pertsona bat.

Egokia ez dela behar bezala justifikatuta egon ezean, epaimahaia edo hautaketa-organoko teknikoak behar bezalako gaitasuna, eskumena eta prestakuntza duten emakumeek edo gizonen osatu beharko dute, orekaturik. Eta egokia ez dela justifikatuta egon ezean, sexu bakoitzeko ordezkariak %40 izango dira, gutxienez.

Epaimahaiko kideek ez dute parte hartu beharko, Alkate-Udalburuari jakinaraziz, eta izangaiek errekurtsioa aurkez diezaiekete, indarrean dagoen Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Erabakiak bertaratutako Epaimahaiko kideen aldeko botoen gehiengoaz hartuko dira, eta berdinketarik egonez gero Presidentearen kalitatezko botoak ebatziko du. Epaimahaiko kide guztiek hitza eta botoa izango dituzte, Idazkariak izan ezik, hitza izango baitu baina botorik ez.

Epaimahaiak bere lanetan, hautaketa-prozesuaren proba guztietarako edo batzuetarako, aholkulariez baliatzea erabaki dezake; aholkulariok beren espezialitate teknikoaren esparrura mugatuko dira eta beren espezialitateetan aholkularitza eta laguntza teknikoak eskainiko dituzte, hitzarekin baina botorik gabe.

Epaimahaiak autonomia funtzional osoa izango du, eta Oinarri hauen aplikazioari eta interpretazioari buruz sortzen diren zalantzak eta galderak ebatzeko eskumena izango du, bai eta hautaketa-prozesua burutzeko beharrezkoak diren erabaki guztiak hartzeko, Oinarri hauetan edo araudi aplikagarrian aurreikusita ez dagoen guztiari dagokionez.

Epaimahaiak bermatuko du izangaiek hautaketa-prozesuaren barruan euren espedientearen berri izateko duten eskubidea.

Hautaketa Epaimahaietan parte hartzeagatik asistentziak eta kolaborazioak, zerbitzu arrazoiengatik indemnitazioei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan xedatutakoaren arabera arautuko dira.

**Seigarrena. — Hautaketa-prozedura**

Deitutako lanpostuaren izaeraren arabera ezagutza-proba objektiboen bitartez, meritu jakin batzuen eta egiaztatu ezin diren esperientzia-maila batzuen balorazioa egokia izanik, izangaiak oposizio eta lehiaketa sistemaz hautatuko dira, eta oposizio eta lehiaketa prozedurak bata bestearen atzetik burutuko dira, bertan parte hartuko dutenen gaitasuna eta ondorioztatzen den lehentasun hurrenkera zehazteko.

A) OPOSIZIO-FASEA

EAEko Poliziaren Hautaketa eta Prestakuntza-araudia arautzen duen uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuaren 8. artikuluan xedatutakoari jarraiki, oposizioan gaitasun-proba teorikoak edota praktikoak egingo dira, izangaien gaitasuna eta euren arteko lehentasun hurrenkera zehazteko.

Oposizioan hiru ariketa, derrigorrezkoak eta baztertzailak, egin behar dira. Fase honetan lor daitekeen puntuaziorik handiena 5,5 puntukoa izango da eta mozketak 2,75 puntukoa izango da.

Lehenengo ariketa (derrigorrezkoa eta baztertzaila)

Idatziz erantzun beharko zaio Epaimahaiak ezarritako gehieneko epean, aukera anitzeko erantzunak dituen galdera-sortari. Galderak, oinarri hauen I. Eranskinean dauden gaiak buruzkoak izango dira.

Puntuazioa 0 puntutik 2,75 puntura kalifikatuko da. 1,38 puntura heltzen ez direnak baztertua geratuko dira.

Baloratzeko, erantzun zuzenei emango zaizkie puntuak, eta oker erantzundako galderetako puntuak kenduko zaizkie, alde aurretik Epaimahaiak ezarritako duen eta lehiaketariek ezagutuko duten koefiziente baten arabera. Galderak erantzunik gabe uzteagatik ez da punturik kenduko.

Bigarren ariketa (derrigorrezkoa eta baztertzaila)

Ariketa hasi aurreko unean Epaimahaiak zehaztutako ariketa praktiko bat egin beharko da, adierazitako gehieneko epean, oinarri hauetan adierazitako gai-zerrendan dauden gaiez eta bete beharreko plazako eginkizunei buruz izangaiak dituzten ezagutza praktikoak zehazteko.

Puntuazioa 0 puntutik 2,75 puntura kalifikatuko da. 1,38 puntura heltzen ez direnak baztertua geratuko dira.

Hirugarren ariketa (derrigorrezkoa eta baztertzaila)

2. Hizkuntza eskakizuna egiaztatu beharko da Epaimahaiak zehaztutako eran, horretarako HAEK emandako zuzentzauei jarraituz, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 99.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Ariketa hau kalifikatuko da Gai ala Ez Gai eran, eta ariketa honetan izangaiak gai izateko kalifikazioa lortu beharko dute.

Ariketa hau ez dute egin beharrik izango HAEK emandako 2. Hizkuntza eskakizunaren Egiaztatzea edo apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 41. artikuluan, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren 3. artikuluan eta hurrengoetan eta apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan aipatzen diren Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C-1 mailarekin parekatuta dauden euskararen ezagutzako tituluetako bat edo egiaztatze ofizialekin bat dutenek, ariketa hasi aurretik, dagokion ziurtagiria aurkeztuz, hala egiaztatu badute.

B) LEHIAKETA-FASEA

Oposizio-fasea gainditzen duten izangaiak lehiaketa-fasera pasatuko dira. Bertan Kalifikazio-epaimahaiak oinarri hauetan ezarritako merituak baloratuko ditu, eskabide-orrian alegatu badira, eta bestelako meriturik ezin izango da baloratu. Eskabide-orriak aurkezteko epea amaitzen den egunera arte ziurtatutako merituak soilik baloratuko dira.



Lehiaketa-fasea ez da baztertzaileria izango eta lor daitekeen gehieneko puntuazioa ezin izango da erabili oposizioko ariketak gainditzeko edo horretan lortutako kalifikazioak aldatzeko, EAeko Poliziaren Hautaketa eta Prestakuntza-araudia arautzen duen uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuaren 18. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Lehiaketa-fasean, ondoko arauak bete beharko dira:

- a) Izangaiek alegatutako merituak jasotzen dituen adierazpena aurkeztu beharko dute eskabide-orriak aurkezteko epearen barruan.
- b) Eskabide-orriak aurkezteko epea amaitzen den momentuan behar bezala alegatu eta ziurtatu ez diren merituak ezin izango dira ezein kasutan baloratu.
- c) Ez dira inola ere baloratuko funtzionario izateko hautaketa-prozesuetako nahitaezko ariketa gisa aurreikusitako prestakuntzako ikastaroak, ezta baloratutako beste ikastaro batzuen eduki berbera dutenak ere.
- d) Merituak eskabideak aurkezteko epearen azken eguna gehieneko erreferentzia gisa hartuta baloratuko dira.

Deialdi honetan, Hautaketa Epaimahaiak ondoko merituak baloratuko ditu:

1. *Gradu pertsonala:*

- Eskatutako lanpostuak duen maila bera: 0,40 puntu.
- Eskatutako lanpostuak duen maila bat gutxiagokoa: 0,27 puntu.
- Eskatutako lanpostuak duen bi maila gutxiago edo are gutxiagokoa: 0,14 puntu.

Lor daitekeen gehieneko puntuazioa 0,40 puntukoa izango da.

2. *Prestakuntza eta Hobekuntza ikastaroak eta titulazio akademikoak:*

- a) Ondoko gaiekin lotutako prestakuntza-ikastaroak egin izanagatik: Zigor-zuzenbidea, Administrazio-zuzenbidea, Trafikoa, Herritarren Arreta, Tresnen erabilera (Arma, ibilgailuak, aplikazio informatikoak...), Gatazka-konponketa eta Epaimahaiak bete beharreko lanpostuarekin zerikusi zuzena dutela ebatzen dituenak, eta zentro ofizialek edo unibertsitateek antolatutakoak edo eurek emandakoak edo eurek emandako homologazioa dutenak.
 - 20 ordu arteko ikastaroak: 0,08 puntu.
 - 21 ordu eta 50 ordu arteko ikastaroa: 0,13 puntu.
 - 51 ordu eta 100 ordu arteko ikastaroa: 0,21 puntu.
 - 100 ordutik gorako ikastaroa: 0,26 puntu.
- b) Eskatzen dena baino goragoko titulazioa izateagatik: 0,26 puntu.

Atal honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa 1,30 puntukoa izango da.

3. *Antzinatasuna:*

- Udaltzaingoaren Agente Lehen (Kabo) gisa edozein Administrazio Publikotan benetan emandako zerbitzuengatik, 0,05 puntu emango dira hilabete oso bakoitzeko, gehienez 2,30 puntu arte.
- Udaltzaingoaren Agente gisa edozein Administrazio Publikotan benetan emandako zerbitzuengatik, 0,005 puntu emango dira hilabete oso bakoitzeko, gehienez 0,50 puntu arte.

Atal honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa 2,80 puntukoa izango da.

Zazpigarrena. — Hautaketa-prozesuaren hasiera eta garapena

Oposizio-fasearen lehendabiziko ariketaren lekua, eguna eta ordua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Galdakaoko Udaleko Iragarki-taulan argitaratuko dira, hautaketa-prozesuan onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartuko duen ebazpenarekin batera. Proba amaitzetik hurrengo hasteko tartea gutxienez hirurogeita hamabi (72) ordukoa izango da, eta ezin izango da gainditu ezein kasutan berrogeita bost (45) eguneko gehieneko epea. Izangaiek irakurketa publikoa egiteko idatzizko ariketen kasuan, aurreko paragrafoan zehaztutako epeak idatzizko ariketa amaitzeko unetik zenbatzen hasiko dira eta ez da beharrezkoa izango irakurketa publikoa amaitu arte itxarotea.



Hautaketa-prozesu bakoitzeko bigarren proba eta hurrengoak egiteko iragarkiak Hautaketa Epaimahaiak argitaratuko ditu Udaleko Iragarki-taulan, beranduen jota proba hasi baino hamabi ordu lehenago, proba bera bada, edo hogeita lau ordu lehenago, proba berria bada.

Administrazio Publikorako Estatuko Idazkaritzak egingo duen zozketaren arabera jardungo dute hautagaiek, zozketa horrek zehaztutako hurrenkeran, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuko 17. artikuluan ezarritakoaren arabera. Zozketan ateratako hizkiz hasitako lehen abizenik duen izangairik ez balego, dagokien ondoko hizkien hurrenkeran jardungo dute hautagaiek.

Ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingo da, eta baztertuta geratuko dira ariketa egiteko bertarutzen ez diren guztiak, behar bezala justifikatutako eta Epaimahaiak zuhurtziaz aztertutako kasuak izan ezik.

Izangaiek probetako ariketa bakoitzera Nortasun Agiri Nazionala eraman beharko dute, edo horren orde, beren nortasuna Epaimahaiaren iritziz behar bezala egiaztatzen duen beste edozein agiri. Epaimahaiak, edozein momentutan, eska diezaieke izangaiei nortasuna egiaztatzea.

Epaimahaiak denbora eta bitartekoen aldetik beharrezko egokitzapenak egingo ditzute, izangai elbarriek ariketak egin ahal izan ditzaten. Horrela, gainerako izangaien aukera berdinak dituztela bermatuko da, baldin eta horrekin ez bazaio probaren edukiari kalterik egiten, edo ez bada eskatutako gaitasun maila jaisten edo urritzen.

Epaimahaiak gainditutako ariketen kalifikazioak eta merituen balorazioak Udaleko Iragarki-taulan argitaratuko ditu.

Izangaiek onartuen zerrenda egokian sartzeak ez du esan nahi prozesua izapidetu bitartean Epaimahaiaren erabakiz baztertuta ez geratzeko eskubidea dutenik, proba guztiak egin zein ez egin, datuak edo aurkeztutako dokumentuak egiaztatzearen ondorioz ikusten bada lehiakideak ez dituela biltzen onartua izateko eta hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatutako baldintza guztiak. Kasu horretan, Epaimahaiak interesduna baztertuko du, berari entzun ondoren eta baztertzeko arrazoiak idatziz jakinarazi ondoren.

Zortzigarrena. — Epaimahaiaren proposamena

Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa lehiaketa eta oposizio faseetan lortutako emaitzen batura izango da.

Hautaketa-prozesu bakoitza amaitutakoan, dagokion Epaimahaiak Udaleko Iragarki-taulan argitaratuko ditu proba gainditu duten izangaien behin betiko kalifikazioak, lortutako puntuazioaren hurrenkeran. Gainera, berariaz aipatuko ditu hautatutako pertsonak.

Epaimahaiak proba teoriko-praktikoa gainditu duten hautatutako izangaiek alegatutako merituak soilik baloratuko ditu.

Merituak egiaztatu beharko dira Zuzenbidean onartutako edozein modutan, eta be-reziki honela:

- a) Titulazio akademiko ofizialetarako, tituluaren fotokopia edo eskubideak abonatu izanaren frogagiria.
- b) Zerbitzuak emateari dagozkion merituak Herri Administrazioen Agiri bidez egiaztatu beharko dira; gainera, adierazi beharko da lanpostuaren edo plazaren izena, zein talderi dagozkion, plaza hornitzeko eskatutako titulazio-eskakizunak zein diren eta zerbitzu horretan zenbat denbora eman den.
- c) Interesdunek alegatu ahal izango dituzte Galdakaoko Udalean emandako zerbitzuak, baina ez dituzte egiaztatu behar izango, horiek Administrazio honek ofizioz zenbatu ditzakeelako.
- d) Prestakuntza-ikastaroetarako, prestakuntza eman duen erakundearen egiaztagiria edo tituluaren fotokopia. Titulu horretan adierazi beharko dira erakunde antolatzailearen izena, ikastaroaren izena, prestakuntza-egitaraua, hori adierazi ahal balitz, eta ikastaroaren iraupena. Orduan iraupena zehaztuko ez balitz, Epaimahaiak erabakiko du meritu hori baloratu ala ez.



Epaimahaiak erabakiko balu plazara aurkeztutako izangai bakar batek ere ez duela lanpostua betetzeko eskatzen diren gutxienerako baldintzak betetzen, lanpostua bete gabe utz dezake.

Sailkapenaren hurrenkeran izan daitezkeen berdinketak ondoko irizpideen arabera ezartzen den hurrenkeran ebatziko dira:

- a) Emakumeen eta gizonen berdintasunerako, otsailaren 18ko 4/2005 Legea.
- b) Puntuaziorik onena proba teoriko-praktikoan.
- c) Puntuaziorik handiena Galdakaoko Udaltzaingoan duen antzinatasun-atalean.

Hautaketa-sistema osatzen duten ariketen kalifikazioa eta merituen balorazioa amaitu ondoren, Epaimahaiak Iragarki-taulan eta webgunean jakinaraziko ditu lehiaketa gainditu duten izangaien izenak, lortutako puntuazioaren hurrenkeran, handienetik txikienera.

Berriaz adierazten da Epaimahaiak ezin izango dituela hautatu deitutako plaza kopurua baino izangai gehiago. Muga hori urratzen duten proposamenak zuzenbidean erabat baliogabeak izango dira.

Proposatutako izangaiak, aipatutako jakinarazpena argitaratu denetik hasita 20 egun naturaleko epearen barruan, lehiaketan parte hartzeko Oinarrietan eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko, aurretiaz eskabidean dagoen adierazpenean alegatutako jatorrizko egiaztagiria aurkeztuko ditu.

Adierazitako epearen barruan eta ezinbesteko kasua ez bada, izangaiak dokumentazioa aurkeztuko ez balu edo eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatuko ez balu, ezin izango da izendatua izan, eta haren jarduera guztiak baliogabetuta geratuko dira. Kasu horretan, organo eskudunak proposamen berria egingo du, hautaketa-prozesua gaindituta, azken puntuazioaren hurrenkeran hurrengo lekuan dagoenaren edo daudenaren alde.

Bederatzigarrena. — *Praktiketako funtzionarioaren izendapena*

Halaber, Epaimahaiak Alkatetzari bidaliko dio gainditutako pertsonen zerrenda, puntuazioaren hurrenkeraren arabera, bai eta hautatutako pertsonak praktiketako funtzionario gisa izendatzeko proposamena, bidezkoa bada.

EAEko Polizia osatzen duten gorputzen eskaletan eta kategorietan sartzeko hautaketa-sistemak osatuko dira, hautaketa-prozesuaren fase bat gehiago gisa, prestakuntza-ikastaroak eta praktikaldiak eginez.

Alkate-Udalburuak, Epaimahaiak proposaturik, oposizio-lehiaketa fasean puntuaziorik handiena lortu duen izangaia praktiketako funtzionario izendatuko du eta egoera horretan egongo da prestakuntza-ikastaroaren hasieratik karrerako funtzionario izendatua edo prozesutik baztertua izan arte.

Prestakuntza-ikastaroaren eta praktikaldiaren hasierarako zehaztu den data, praktiketako funtzionario izendapenarekin batera, Galdakaoko Udaleko Iragarki-taulan jakinaraziko da.

Eskakizunak aurreko paragrafoan ezarritako eran egiaztatuak izan ondoren, Epaimahaiak Galdakaoko Udalaren organo eskudunari eskatuko dio praktiketako funtzionario gisa izendatzeko proposamena egin dezan.

Organo eskudunak praktiketako funtzionario izendatuko ditu Kalifikazio-epaimahaiak proposatutako izaera horretako izangaiak.

Praktiketako funtzionario izendatutako pertsonak EAEko Poliziaren 4/1992 Legearen 54.2 artikuluan adierazitako ordainsariak jasoko ditu.

Hamargarrena. — *Prestakuntza-ikastaroa eta praktikaldia*

Prestakuntza-ikastaroak eta praktikaldiak derrigorrezkoak eta baztertzailak izango dira banan-banan hartuta eta horietan hasten ez bada edo gainditzen ez baditu automatikoki izangaia hautaketa-prozesutik baztertu eta sartzeko izan zitezkeen eskubide guztiak galduko lituzke.



EAEko Polizia osatzen duten gorputzen eskaletan eta kategorietan sartzeko hautaketa-sistemak osatuko dira, hautaketa-prozesuaren fase bat gehiago gisa, prestakuntza-ikastaroak eta praktikaldiak eginez.

Prestakuntza-ikastaroa derrigorrezkoa eta baztertzalea izango da, eta ezarritako ikasketa-planaren arabera egingo den hautapen izaerako ikastaro akademikoa izango da, bertan aurreikusten den iraupenaz. Ikastaroaren hasiera EAEko Polizia Ikastegiaren ebazpenaren arabera xedatuko da.

Hautaketa-prozesu honi dagokionez, EAEko Poliziaren uztailaren 17ko 4/1992 Legean eta EAEko Poliziaren Hautaketa eta Prestakuntza-araudia onesten duen uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuan xedatutakoa beteko da.

Hautaketa-prozesuaren fase honekin zerikusia duten aspektu guztietarako, prestakuntza-ikastaroarekin bezala, EAEko Poliziaren uztailaren 17ko 4/1992 Legean eta EAEko Poliziaren Hautaketa eta Prestakuntza-araudia onesten duen uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuan xedatutakoa beteko da.

Organo deitzailearen ebazpenez, praktikaldia hasi aurretik, praktiketako organo erantzulea, ebaluazio-sistema, balorazio-arduradunak, iraupena, destinoko atala, azken balorazioa eta kalifikazioa eta hautaketa-prozesuaren fase hau behar bezala baloratzeko zehaztu behar diren bestelako atal guztiak zehaztuko dira.

Prestakuntzako hautapen-ikastaroa eta praktikaldia amaitu ondoren, Ikastegiko Zuzendaritzak izangai bakoitzaren gaitasunari eta baldintzei buruzko txostena egingo du, eta hautaketa-prozesuko Kalifikazio-epaimahaiari aurkeztuko zaio. Beronek proposamen hori ikusita, Alkate-Udalburuari bidezko proposamena aurkeztuko dio dagokion zentzuan.

Hautaketa-prozesuaren behin betiko sailkapena, oposizio-fasean eta prestakuntza-ikastaroan eta praktikaldian lortutako kalifikazioen baturaren ondorioa izango da.

Hamaikagarrena. — Behin betiko izendapena

Izendapenerako, ezinbesteko baldintza izango da praktikaldian gaitasun-adierazpena izatea.

Hautaketa-prozesuaren behin betiko sailkapenaren hurrenkera, oposizio eta lehiaketa fasean, prestakuntza-ikastaroan eta praktikaldian lortutako kalifikazioak baturik egingo da.

315/1994 Dekretuaren 51.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, praktikaldia amaitu ondoko bi hilabeteren barruan, organo eskudunak praktikaldia gainditu duen izangaia karrerako funtzionario izendatuko du, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udaleko Irargarki-taulan argitaratuko da eta interesdunari jakinaraziko zaio.

Izendatutako pertsonak, izendapena argitaratu den biharamunetik hasita gehienez 10 eguneko epean lanpostua jabetzaz hartu beharko du. Hala egingo ez balu, derrigorrezko arrazoirik izan ezik, jarduera guztiak ondoriorik gabe geratuko dira, eta karrerako funtzionario izaera eskuratzeko izan ditzakeen eskubide guztiak galduko lituzke.

Hamabigarrena. — Inpugnazioak

Deialdi hau nahiz bere ondorioz eta Kalifikazio-epaimahaien jardueraren ondorioz sortzen diren administrazio egintza guztiak aurkaratu ahal izango dira, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako kasu eta moduetan.



I. ERANSKINA

GAI-ZERRENDA

1. gaia: Prozedura Kriminaleko Legea. IV. Titulua. Nori dagokion delitu eta faltan ondoriozko akzioak egikaritzea (100. artikulutik 117.era). V. Titulua. Defentsarako, doako laguntza juridikorako eta itzulpen eta interpretaziorako eskubidea epaiketa kriminaletan. I. Kapituluua. Defentsarako eta doako laguntza juridikorako eskubidea (118. artikulutik 122.era). Sumarioaren II. Liburua. Lehenengo Titulua. Salaketa (259. artikulutik 269.era).

2. gaia: Zigor Kodeari buruzko 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoak aldatuta. Lehenengo Liburua. Delituei, arduradunei, zigorrei, segurtasun-neurriei eta arau-hauste penalaren gainerako ondorioei buruzko xedapen orokorrak. Lehenengo Titulua. Arau-hauste penala. Lehenengo Kapituluua. Delituak (10. artikulutik 18.era), II. Kapituluua. Erantzukizun kriminaletik salbuesten duten kausak (19-20. artikulua). III. Kapituluua. Erantzukizun kriminala arintzen duten inguruabarrak (21. artikulua). IV. Kapituluua. Erantzukizun kriminala larriagotzen duten inguruabarrak (22. artikulua). V. Kapituluua. Ahaidetasun-inguruabar mistoa (23. artikulua).

3. gaia: Zigor Kodeari buruzko 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoak aldatuta. III. Titulua. Zigorak. Lehenengo Kapituluua. Zigorak, motak eta ondorioak. 1. Sekzioa. Penak eta motak (32. artikulutik 34.era). 2. Sekzioa. Askatasunaz gabetzeko zigorak (35. artikulutik 38.era). 3. Sekzioa. Eskubideez gabetzeko zigorak (39. artikulutik 49.era).

4. gaia: 4/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, Herritarren Segurtasuna babesteari buruzkoa. III. Kapituluua. Herritarren Segurtasuna mantentzeko eta berrezartzeko jarduerak. 1. Sekzioa. Segurtasun-poliziaren ahal orokorrak (14. artikulutik 22.era). V. Kapituluua. Zehatzeko araubidea. 1. Sekzioa. Arau-hausteei buruzko subjektu erantzuleak, organo eskudunak eta erregela orokorrak eta zehapenen aplikazioa (30. artikulutik 33.era). 2. Sekzioa. Arau-hausteak eta zehapenak (34. artikulutik 43.era).

5. gaia: Genero indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa. Atariko Titulua. II. Titulua. Genero indarkeriaren emakumezko biktimen eskubideak. I. Kapituluua. Informazioa, oso-osoko gizarte-laguntza eta doako laguntza juridikoa izateko eskubidea (17. artikulutik 20.era). II. Kapituluua. Lan-eskubideak eta Gizarte Segurantzaren prestazioak (21. artikulutik 23.era). III. Kapituluua. Emakumezko funtzionario publikoen eskubideak (24. artikulutik 26.era). IV. Kapituluua. Eskubide ekonomikoak (27. eta 28. artikulua).

6. gaia: 5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa, adingabeen erantzukizun penala arautzen duena. I. Titulua, Legearen aplikazio-eremua (1. artikulutik 6.era). III. Titulua, Prozeduraren instrukzioa. I. Kapituluua. Erregela orokorrak. 17. artikulua. Adingabeak atxilotzea.

7. gaia: 6/2015 Legegintzako Errege-dekretua, urriaren 30ekoa, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onesten duena. II. Titulua. Jokabide-arauak zirkulazioan. I. Kapituluua. Arau orokorrak (10. artikulutik 14.era). II. Kapituluua. Ibilgailuen zirkulazioa. 1. Sekzioa. Bidearen kokapena (15. artikulutik 20.era). 3. Sekzioa. Pasabide-lehentasuna (23. artikulutik 27.era). 4. Sekzioa. Zirkulazioan sartzea (28. eta 29. artikulua). 5. Sekzioa. Norabide- eta zentzu-aldaketak, eta atzera-martxa (30. artikulutik 32.era). 6. Sekzioa. Aurreratzea (33. artikulutik 38.era). 7. Sekzioa. Gelditzea eta aparkatzea (39. eta 40. artikulua). 9. Sekzioa. Argien erabilera (43. artikulua). 10. Sekzioa. Gidarien ohartarazpenak (44. artikulua).

8. gaia: 6/2015 Legegintzako Errege-dekretua, urriaren 30ekoa, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onesten duena. IV. Titulua. Baimen administratiboak. II. Kapituluua. Gidatzeko baimenak (61. artikulutik 65.era). III. Kapituluua. Ibilgailuei buruzko baimenak (66. artikulutik 68.era). IV. Kapituluua. Baimenaren baliogabetasuna, kaltegarritasuna eta indargabetzea. Gidatzeko baimen edo lizentzia berria lortzea (69. artikulutik 73.era). V. Titulua. Zehapen-araubidea. I. Kapituluua. Arau-hausteak (74. artikulutik 79.era). II. Kapituluua. Zehapenak (80 eta



81. artikulua). III. Kapitula. Erantzukizna (82. artikulua). VI. Kapitula. Behin-behineko neurriak eta beste neurri batzuk (103. artikulutik 105.era).

9. gaia: 320/1994 Errege-dekretua, otsailaren 25ekoa, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Zehapen-prozedurako Erregelamendua onesten duena.

10. gaia: 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerena. IV. Titulua. Zaintza, kontrola eta ikuskapena (40. artikulutik 49.era). V. Titulua. Zehatzeko Araubidea. I. Kapitula. Arau-haustek (50. artikulutik 54.era).

11. gaia: 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakume eta gizonen berdintasunera-koa: Atariko Titulua. I. Titulua: eskumenak, eginkizunak, antolaketa eta finantzaketa. II. Titulua: Euskal aginteen eta administrazio publikoen jardueran genero ikuspegia integrazteko neurriak. III. Titulua: Esku-hartze arlo desberdinetan berdintasuna sustatzeko neurriak.

12. gaia: Galdakaoko Babes Zibileko Udal Babes Plana. 3. puntua. Arriskua eta ahulezia. 4. puntua. Prebentziozko Jarduerak.

13. gaia: Ospakizunen plangintza. Zereginak eta gailuak. Giza baliabideak eta bitarteko materialak. Barneko eta kanpoko koordinazioa.

14. gaia: Galdakaoko Udalaren Terrazak eta Hankabakarreko Mahaiak Instalatzea arautzen duen Udal Ordenantza.

15. gaia: Galdakaoko udalerrian Animaliak Eduki eta Babestea arautzen duen Ordenantza.

16. gaia: Garbiketako eta Hondakinen Kudeaketako Udal Ordenantza. I. Titulua. Xedapen orokorrak (1. artikulutik 4.era). II. Titulua. Bide publikoaren garbiketa eta onartu gabeko jarduerak (5. artikulutik 10.era). III. Titulua. Publizitate-jarduerak (11. artikulutik 15.era). VI. Titulua. Arau-haustek eta zehapenak (44. artikulutik 48.era).